

Arizkuren gose grebarekin segitzeko asmoa azaldu du berriro, 54. egunean

Egoeraren larria azaltzeko, presoek senideak Nafarroako alderdiekin bilduko dira

Erredakzioa / Iruñea

Jose txo Arizkuren presoak gose greban jarraitzeko asmoa azaldu du zion abokatuari. Artean gose greban dauden Nafarroako presoek senideak EH, EA-EAJ eta IU alderdien ordezkarekin bildu ziren atzo Parlamentuan. Astelehenerako hitzartu dute beste bilera bat UPN, PSN eta CDNekin.

GREBALARIEN senideak Iruñeko alkatearekin eta Sebastian artzapezpikuarekin ere «ahalik eta lasterren» biltzen saiatuko dira, «Jose txo Arizkuren presoaren egoera larriaren berri emateko, eta presoek eskubideen inguruko konpromiso zehatzak eskatzeko». Parlamentuan Shanti Kiroga (EH), Isabel Arbonies (IU) eta Begoña Errazti (EA-EAJ) izan ziren senideekin.

Jose txo Arizkuren preso iruindarrak 54. eguna du gaurkoa gose greban. Atzo medikuari eta abokatuari grebarekin aitzina jarraitzeko borondate eta asmoa duela adierazi zien. Abokatuak jakinarazi zuenez, «Arizkuren 45,2 kilo pisatzen ditu, goizero ohetik jaikitzen da garbitzeko eta, zailtasun handiagotuz doazen arren, egunkaria irakurtzen du».

EHko parlamentario Per-



Shanti Kiroga eta Fernando Barrena, atzo Iruñean eskaini prentsaurrekoan.

nando Barrenak atzo erran zuen Arizkuren presoaren egoera «kritikoa eta dramatikoa» dela. «Arizkuren hil egin daiteke, eta UPN eta PSN Arizkuren gerta dakiokkeenaren erantzule politiko dira», esan zuen.

Barrenak presoek egoera salatzen diren mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egin zuen, bereziki, larunbatean Iruñean egin den manifestaldian. Gainera, Nafarroako Parlamentuan heldu den asteartean izanen

den bilkuran bost minutuko etenaldia egitea proposatuko du EHk.

Sinn Feinen deia azuia konpon dadin

Alex Maskey Sinn Feineko parlamentarioak euskal presoak izan ditu gogoan, eta kezka larria azaldu du gose greban diren presoengatik, eta bereziki Jose txo Arizkurenengatik. «Salagarria da Arizkuren 52 egun gose greban eramatea. Gertaera larria da,

bai haren familiarentzat eta baita Euskal Herri osoarentzat ere», esan zuen Maskeyk.

Sinn Feineko buruaren ustez, «euskal presoak oinarriko giza eskubideak eta eskubide zibilak eskatzen ari dira, Espainia eta Frantziako gobernuek ukatzen dituztenak. Bi gobernuek egoerak txarrera egin ez dezan eskura duten guztia egiteko ardura moral eta politikoa dute. Sinn Feinek dei egiten die eragina duten guztiei, gai honi aterabide bat emateko».

Bilboko hiru presoaren egoera salatu dute udaleko EAJ-EA eta EHk

Joseba Arruti / Bilbo

BILBOKO Udaleko EAJ-EA eta EHko taldeetako bozeramaile Juanjo Olabarria eta Lander Etxebarriak Bizkaiko hiriburuko hiru presoaren egoera salatu zuten atzo. Udalean presoek egoeraren jarraitpenerako propio eraturako batzordeak Jose Antonio Olagorta, Raul Alonso eta Joseba Artolaren kasuei erreparatu die bereziki. Batzordea EAJ-EA, EH, ICV eta IUk osatzen dute, eta Bilboko preso guztien egoera aztertzeko konpromisoa hartu du.

Lander Etxebarriak azaldu zuenez, Olagortak 19 urte daramatza kartzelan, eta 1996ko abuztuan bete zituen bere zigorraren hiru laurdenak. Beti eduki dute Euskal Herriko urrun, eta gaur egun Bonexeko (Ourense) kartzelan dago. Udaleko ordezkariak Espetxe Erakundeetako agintariekin biltzeko asmoa agertu zuten, presoaren behin-behineko askatasuna eskatzeko.

Raul Alonsori, orkatilan duen lesio bat dela eta, ebakuntza egin behar diote, eta medikuek azter dezaten eskatu duen arren, orain arte ez du horrelakorik lortu. Joseba Artola, azkenik, aita izango da laster, eta jaiotzan egon ahal izateko ez dute Puerto de Santa Mariatik (Cadiz) trasladatu oraindik.

Datorren asteko baraualdirako 400 lagunek eman dute izena jada

ABENDUAREN 27tik urtarilaren 2ra bitartean Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta egiteko den gose greba masiboaren prestaketa aurrera doa. AABek jakinarazi dutenez, gose greba lau lekutan egingo da: Gasteizen Magisterioko fakultatean izango da, Iruñean Rekoletas kaleko egoitza batean, Bilbon Solokoetxe eskola publikoetan eta Arrasaten kiroldegian.

AABek emandako datuen arabera, baraualdian parte hartzeko jada 400dik gora lagunek eman dute

izena. Gipuzkoan 200 lagunek adierazi dute datorren asteko baraualdian parte hartzeko asmoa, eta Bizkaian ehundik gora lagunek.

Juan Mari Olano Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideak deia egin dio gizaritari presoek aldeko ekimenean parte har dezaten. Olanoren aburuz, ezinbestekoa da presoek konpromisoa ikusita gizaritari ere maila bera erakustea. AABetako kidearen ustez, halaber, «euskal gizaritarien hitza» errespetarazi beharra dago.

Gose greban dauden beste zenbait preso ere ondorio larriak izaten ari dira protesta dela eta

KIKE URARTE presoak 25. eguna betetzen du gaur gose greban. Urartek 11 kilo galdu ditu egunotan, eta larriuan arazoak ditu. Gorputz osoan ekzemak ateratu zaizkio, eta medikuen arabera sendaezinak dira. Presoa datozen egunetan ospitalera eramango dute.

Martutenen Iker Loiti eta Patxi Aristi presoek 24. eguna dute gaurkoa jakirik ahoeratu gabe. Loitik 12 kilo galdu ditu, eta Aristik, berriz, 9 kilo. Iñaki Arietaleanizek 23 egun daramatza baraualdian, eta honezkero 12 kilo galdu ditu. Mario Ar-

tolak 22 egun egin ditu protestan eta 10 kilo galdu ditu, eta Ander Beristainek, berriz, 9 kilo galdu ditu 18 egunetan.

Paula Garciak gose greba utzi behar izan zuen osasun arazoengatik, eta ospitalera ateratu ostean jakinarazi diote harriak dituela giltzurrunean. Garciari bost litro suero jarri behar izan dizkiote.

Bestetik, presoek egoera salatu eta gose grebalariei elkartasuna adierazteko hainbat ekimen izango dira asteburuan. Igandero legez, Martuteneko espetxearen aurrean kontzentrazioa

izango da eguerdian, eta autobusak aterako dira Zumaiara, Oñati eta Bergararik. Igandean bertan, Andoaindik, Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta, autobusa aterako da Burgosko espetxera 9:00etan Beheko plazatik. Martxa honen helburua Aritz Arnaiz herriko presoari elkartasuna adieraztea da, han baitago gose greban.

Espetxeetan ere hainbat ekimen egiten ari dira, eta Almerian, esaterako, Gaboneko janari berezia hartzeari uko egingo diote elkartasun seinale gisa.